



# Bere egin ninduen herria

## *Mari Luz Esteban Haragizko Erreformak*

**Kale-irahurraldia Martxoak 17-17:00 AEK euskaltegitik abiatuta**



23. Korrika

Inundiak Batonarat  
2024ko martxoaren 14tik 24ra




# bere egin ninduen herria

2024-03-17

HERNANI

Korrika Kulturala

Sinatu gabe dauden testuak,  
MARI LUZ ESTEBANen poemak dira,  
“Haragizko erreformak” liburutik hartuak  
(Pamiela, 2023)



Gorputz-erreformak:  
*Gorputzaren erabilerak berreratzen eta  
gizabanakoen eta gizarte-prozesuen arteko harremanak eraldatzen  
dituzten ekintza kolektiboak  
subjektu historiko berriak sorraraziz*

JEAN eta JOHN COMAROFF

# Lehen geltokia



*Lotsa gairitzen dudanean,  
urguilu suerte bat sentitzen hasiko naiz herrixka xarmant  
batean  
bizi partez  
halako fabrika fetidoa dagoen lekuan hazteagatik.  
Madarikazio horretan hezi gara,  
madarikazioa onartu dugu,  
madarikazioa maitatzen amaitu dugu  
eta horrek garaiezin bilakatu gaitu*

EIDER RODRIGUEZ

# bere egin ninduen herria

bere egin ninduen herria  
ez zen ederra  
ez zen adikorra  
ez zen baketsua

bere egin ninduen herria  
arrea zen  
iluna  
izerbera  
kirasduna

bere egin ninduen herria  
espaloigabea zen  
fabrikak  
obrak  
lokatza  
harmoniarik gabea

bere egin ninduen herria  
gordina zen  
ankerra  
gogorra

bere egin ninduen herriak  
bazuen  
badu kuartela  
bazuen  
badu kartzela

bere egin ninduen herriari  
biziak  
odolak  
indarrak  
gainezka egin zizkioten

bere egin ninduen herriak  
ez zituen gatazkak  
saminak  
borrokak  
ezkututzen

liskarrak  
saminak  
borrokak  
agerian uzteko era bakarra  
edertasunaren gezurra biluztea da

bere egin ninduen herriak  
berezko zuen  
etxekotasun-  
segurantzia-  
komunitate-  
askatasun-  
eta ahalbide-  
sentimenduak sortzeko  
ahalmen miragarria

bere egin ninduen herriak  
bazuen  
badu  
bizi-taupada



# guraso-hizkuntza - 1

Guraso-hizkuntza, gaztelania  
ikasteko eta literaturaz gozatzeko gaitasuna  
betirako piztu zidana  
Maitagarrien liburuak eta Bosten bilduma  
oso-osorik irakurriak

lan-hizkuntza eta seme-hizkuntza, euskara  
maite zaitut esana dut, alabaina, hizkuntza bietan  
euskaraz eta gaztelaniaz pentsatzeko ohitura dut

gaztelaniaz bizi ginen herri hartan  
gaztelaniatik gaztelaniaz, espainolidade totalean

zazpi edo zortzi urte nituenean egun pasan abiatu ginen  
ohi legez, ama, aita eta ahizpekin. gure amak esana zigun  
bere etxean bazkalorduan *on egin* esaten zela  
eta bere amak eta amamak bazekitela *vascuencea*

jatetxe batean ohartu nintzen hormako ezkutuan  
Gernika hitzak ez zuela u-rik. amari jakinarazi nion  
eskandalizaturik. *vascuenceaz* halaxe idazten omen zela  
erantzun zuen berak

## hamalau edo hamabost urterekin

hamalau edo hamabost urterekin bizitza aldatu zitzaidan  
ahizpa nagusiarekin batera San Pedro elizako gela  
ilun eta hits batean hasi nintzen bizkaiera ikasten  
itsustasuna bihotz berriz ere

*Euskalduntzen* liburua baino lehenago  
Bolintxu, Habe eta Euskarabila baino askozaz lehenago  
*Xabier Peña* liburuko hiztegia buruz ikasi nuen:  
*Recto: zuzen, artez*

urteetara gure semea jaio zen  
txikia zenean, lo-kanta baten erdian  
aldian behin esan ohi dizkiodan gaztelaniazko hitzei  
erreparatuta, ama, esan zidan,  
noiz edo noiz *mi amor* esaten didazu  
hori ez al da gaztelania?

ordurako  
bazen gure munduan Gernikako bonbardaketa  
bazen euskara  
baita maite ditugun euskaradun guztiekin  
arrazoi bat edo beste dela medio  
euskaraz hitz egitearen gaiztasuna ere

diglosia afektiboek gaude jota, hizkuntz asimetrian  
bizitzen ikasi ez dugu-eta

## desberdina izatearen seinale

Euskal Herri analogikoaren aroan  
Nafarroako erreinuaren magalean  
Larraonako ikastetxean, Udako Euskal Unibertsitatea  
udaroko erritua

ez zitzaidan axola neure euskara halapurdikoa  
edo logelak niminoak izatea  
ez zitzaidan axola ikasmahaiak umeenak izatea  
edo hormako gurutzefika

oro zen giro, oro zen berri, oro zen  
desberdina izan nahi eta izatearen seinale

idazle ospetsuak kolore desberdinetako  
galtzerdiak zituen, koka-kola eskuan  
zirikatzaile manerak  
euskal literatura modernoa hizketagai

neska bertsolari gazteak futbolearen aritzen ziren  
ikastetxe aurreko patioan  
miraz begiratzen nien nik  
sarrerako mailetatik

oro zen giro, oro zen berri, oro zen  
desberdina izan nahi eta izatearen seinale

gauz energia guztia higitzen genuen  
jota, arin-arin eta pasodoble ikasi berrietan  
inguruko herri guztiak jaiz jai korrituz  
goizean dutxa azkarra eta eskoletara zintzo joateko prest

oro zen abagune, oro zen aukerabide  
oro zen etorkizun, oro zen itxaropen

## erantzunak soberan

Antropologia irakasle naiz Donostian  
lehen urtea  
bederatzi ikasle niri so, aiduru  
euskaraz ni baino askozaz jantziago  
antropologiaz ni baino zerbait gutxiago  
hara noa egunero, urduri, aldez aurretik  
dena buruz ikasirik, hitz berriak ikasteko gerturik

aste gutxitara ohartu naiz ez duela inporta dena ez  
jakiteak  
adoptatua izan naizela  
irakaskuntza adopziozko ekintza da  
edo ez da  
gurasotasuna bezala  
adiskidetasuna bezala  
bertakotzea bezala  
nork edo nork adoptatu behar zaitu  
adopziorik ezean ez da errotzerik  
ez da atxikimendurik

ikasle batzuek adoptatu ninduten  
ez naiz ziur antropologia ikasi zuten  
ez naiz ziur haiek jabetu ote ziren  
ikasle horiengatik ere jaio nintzen mintzo berrira  
bihoazkie bertso hauek  
loreak bailiran

hizkuntza arrotza ikastea umiltasun ariketa da  
ezer ez dakizula onartzea  
eta zerbait dakizunean ere  
ikasteko asko falta zaizula jabetzea  
bertakotzea umiltasun ariketa den gisa berean

zeure buruari galdetu diozu  
ea beste nonbaiteko izan zintezkeen  
baietz, ezetz, erantzutera joan zara  
gainditu beharreko azterketa bailitzan  
hobeto pentsatu eta airean utzi duzu galdera

## PORRA

### 1 — “bat naiz” poemako pasarteak

Zortzi hilabetez  
[\_\_\_\_\_] baten bitartez elkarri loturik  
gu izatera zihoazen aurreizaki haiek  
inoiz inori emango ez dioten  
besarkadarik [\_\_\_\_\_]

- A - mintz / intimoenean
- B - soka / maitekorrenean
- C - hari / estuenean
- D - aurreko hiru aukerak OKERRAK dira

\* \* \*

herriko atsoek esana dute  
hiriburuko medikuak [\_\_\_\_\_] egin die  
[\_\_\_\_\_] gabeko denbora batean

- A - huts / erantzunik
- B - ezentzuna / amairik
- C - arreta / erlojurik
- D - aurreko hiru aukerak OKERRAK dira

\* \* \*

jaiotetxeak zutik dirau, hutsik  
herriaren goi-partean, [\_\_\_\_\_] ,  
adreilu gorriek leihoak [\_\_\_\_\_]

- A - burgoi / minimizaturik
- B - biziraule / inguraturik
- C - zelatari / itsuturik
- D - aurreko hiru aukerak OKERRAK dira

# Bigarren geltokia



*“Itxaropena” lumak dituen horietakoa da*

EMILY DICKINSON



## irudi eta hitz

Euskal Herri digitalaren altzoan  
euskaltasunaren eta herrigintzaren bihotzean  
adituen eta arituen arteko aldea bereizten tematuta  
tradizioa, modernitatea eta postmodernitatea  
hizpide  
euskal kultura grabatzeko ahaleginetan

dena gorde, dena metatu, dena sailkatu  
teknologiarik modernoetan  
irudi eta hitz bihurtu nahi dugu kultura  
irudi eta hitz oraina izoztu  
irudi eta hitz gure ondare nagusia  
etorkizuneko balizko ikusle edo entzuleen zain  
izan ginenekoaren lekuko

baina Niko Etxartek *a capella* oparitutako kantua  
ezer baino zirraragarriagoa izango da  
ezer baino iraunkorragoa

## idazteko arrazoia

Kalenturak gainezka egin du  
neure masailetan  
euskaradun nahikoa izan nahi  
eta ez izatearen bertigoa

lotsa

solaskidearen begitar-tean  
imintzio tiki bat sumatu duzu  
hizkuntza berria ikastea  
umiliazio-proba da

lotsa

lotsa hori gabe ez naiz nor  
lotsa hori gabe ez naiz hemengoa

ba ote dago arrazoi hoberik idazteko?

## besteren herrimina - 1

argal-argala  
jatun txarra  
egun batean  
gure semearen aita  
izango da

Arrasateko San Andres  
langile auzoko sukaldeko  
mahai gaineko apalean  
hankak eta besoak mugitzen  
zaizkion Urtain txikitxo bat

haren amak  
benetako euskaldunak  
asko jan beharra daukala  
esan ohi dio bazkalorduro  
panpinari seinalatuaz

hurrengo eszena udaran da  
zenbait ume kalean  
haien artean geure mutikoa  
gatzelaniaz ari dira  
euskal familien ondorengoak

etorkinen seme-alabak  
haien *pueblo*etara  
dira partituak  
gurasoek diote  
ez direla hemengoak

## besteren herrimina - 2

Une horretan eurak  
hogei urte barru  
euskararen ekintzaile  
bihurtuko diren  
gaztelaniadun ume horiek

eurak  
zenbait urteren buruan  
jaiotzear diren kooperatibetan  
elkarren artean kateatuko  
edota unibertsitatera joango diren

edo etorkin batez maiteminduko  
edota RIP-en musikarekin  
mozkortuko diren  
berberak

herri bat edukitzea  
zer polita behar duen  
ari dira  
ametsetan

ezkutaketan  
pilotara

txorromorropikotaiora  
jolasten diren bitartean

hemengo  
bilakatze jarduketan  
benetako deserriratuak  
nor diren  
igarri ezinean

kalelagunen hutsa  
besteren herrimina

## kaleko rockumeak

aitaren baserrian ikasi du nonbaiteko  
izatea zer garrantzitsua den:  
izekoak *hau geurea da* diotso bisitan doan orori

egizu kontu hiru hitz horiek  
milioika musu eta laztan baino  
eraginkorragoak badirena

kalera hasi da joaten gure mutil gaztea  
laster batean unibertsitatera  
Bilboko giroan bertatik bertara murgiltzera

hemendik hara  
handik hona  
euskara berrernaldu da haren baitan

gaztelaniazko euskal rock erradikalak  
gizon egingo du antxintxiketan  
biziaren zirrara-iturriak ez dira horren ugariak

Urtain panpintxoak ganbarara doa

## PORRA

### 2 — “harrotasuna” poemako pasarteak

garai bat

non [\_\_\_\_\_] joan eta itzuli egiten zen  
eta urez beteriko baldea [\_\_\_\_\_] bat gehiago zen

- A - egunerokoa / erloju
- B - trafikoa / semaforo
- C - iturriko ura / pisukide
- D - aurreko hiru aukerak OKERRAK dira

\* \* \*

garai bat

non poluzioa [\_\_\_\_\_] egiten zen  
eta ibaiaren ertzean [\_\_\_\_\_] ederretik ere bazuela sentitzen nuen

- A - tribializatu / koloretsuak
- B - mastekatu / nabarrak
- C - filtratu / lodiak
- D - aurreko hiru aukerak OKERRAK dira

\* \* \*

garai bat

non etxe orratz [\_\_\_\_\_] paisaiaren neurriak aldatu arren  
umeok herriaren [\_\_\_\_\_] osoaren andre-jaun eta jabe ginen

- A - transgenikoek / zabaltasun
- B - sabairik gabeek / sakontasun
- C - anonimoek / edertasun
- D - aurreko hiru aukerak OKERRAK dira

# Hirugarren geltokia



*Aurrean duzunari esandakoa zuzentzen diozunean  
frogatzen duzu ulertu diozula.  
Zuzentzea botere-ariketa bat da*

NATALIA CASTRO



## euskarara mudatua

Orinal gidari, erraietako odolaren miresle,  
ortografia gogoko eta bekatu larria egin zuen  
maistraren alaba izatetik euskarara mudatua

txikia nintzenean los vascos edo *los aldeanos*  
esaten genien herrian zeuden euskaldun gutxiei

denborara, bertakoak eta maketoak elkaturik,  
adiskideturik, maitemindurik, ezinezkoa zirudiena  
egin genuen: mintzolege berria barreiatu

Basaurin izan da, Bilbo Handian, euskaltasunaren ertzean  
euskararen azentu eta ahoskera (omen) desegokiak  
nekez onartuko zaizkigun inguru berean

## ahantzuraren kontra - 1

gure gurasoak edo gurasoen gurasoak  
gure arbasoak  
urruneko herrialdeetatik etorri ziren hona  
historiako uneak ezberdinak dira

batzuk miseriatik ihesean  
beste batzuk haien inguruko ideien sikateak  
edo bekatuen zemaia bultzaturik

etorkizun edo abentura bila datozenak ere izango dira  
edo hemengo batekin enamoratuak

batzuek hil arte Espainian daudela berretsiko  
beste batzuek, aldarte berriak sortzen eta bizitzen  
ezin trebeago, alaba-sumeentzako zubi izateaz  
harro sentituko dira  
edo itzulera izango dute gutizia, amets

argi dago nor diren heldu direnean  
hain da arrotza haien doinua  
hain iluna haien azala  
hain zailduak haien eskuak

batzuek ez dute ezer jakingo hemengo gatazkez  
hamabost lagun gela bakarreko pisu batean  
aberatsen kontuak dirudite horiek

beste batzuk hemengoan indarraren eta ekintzen  
miresle izango dira jada hona heldu baino lehen

guztiek ala guztiek emozio keinu hitzen  
ekonomia berriak izango dituzte ardura

## ahantzuraren kontra - 2

Esango dugu  
beraien ahalegina baloratzen dugula  
zer gerta ere

esango dugu  
berdin diola non diren jaioak  
non diren heziak

esango dugu  
hizkuntza batek batu gaitzakeela

esango dugu  
hizkuntza hori indartu behar dela

iragana eta orainaldia lotzeko hitz magikoak asmatuko ditugu  
iragana eta orainaldia elkartzeko irudirik borobilenak  
hitz eta irudi horiekin haietako asko liluratzeko gai izango gara  
hizkuntza berriaren soinuak imitatzen saiatuko dira  
soinu horiek imitatzeko beti gai ez izateak lotsagorrituko

baina

behin eta berriro eskribituko dugu gutariko bakoitza  
non garen jaioak  
erdaraz hitz egingo diegu atzerritarrak direla nabarmenduz  
behin eta berriro beraiek eta beraien umeek irainak entzungo  
edo bederen bestean ezaxola mustatuko  
ezer gutxi jakingo dugu beraien mito abesti ipuin eleberriez  
beraien saminez  
aldamenean dantzan edo negarrez ikusten baditugu ere

tarteka

beraien alboan eseriko gara

haien kezak entzungo

haien izen handiak eta txikiak artikulu gai bihurtuko ditugu

haiekin lan egingo dugu herri-aldarrikapenetan

baina

beraien iragana eta geurea denbora ezberdinetara jokatuko da

han eta hemengo artean sortzen dakiten zirrikitu oparoei

ez diegu askotan erreparatuko

han eta hemengo artean sortzen dakiten kartografie

arreta eskas eskainiko

## ahantzuraren kontra - 3

batek baino gehiagok esango du zertara datorren hau  
berrogei, berrogeita hamar urte geroago  
maketo kontuak aspaldi bukatu baziren eta  
oraingoak etorkinak, errefuxiatuak, arrazializatuak direla  
geure artean ongi etorriak?  
zertarako hori guztia?

egun batean, hitz hori iraungita zegoen jada  
maketo bihurtu nintzen  
aita kanpotarra izanik maketo erdi banintzen ere  
emakume izanik atzerritar estatusa bazegokidan ere  
euskarara jaioa banintzen ere

makettoa nintzela ahots gora esan nuen gela hutsean:  
euskarara jaiotako makettoa naiz  
maketo erdia, belarrimotza, mangurrianoa!

euskarara jaiotako makettoa naiz  
Karidadeko Bentaren senitartekoa  
baserria galdu duen leinukoa, bihotza makal, fabrika arnasa,  
herriz herri ibilitako maisu-maistra eta  
txorien miresle izan direnen ondorengoa

## teoria makettoa

ñago

euskalduntasunaren teoria maketo baten  
premian bagarela

teoria makettoa

kanporako eta barrurako kolonialismoen aztarnak  
agerian uzteko

teoria makettoa

iragana, orainaldia eta etorkizuna  
batera jotzeko

teoria makettoa

gure artean diren desberdintasunak eta desberdinkeriak  
ez ahazteko

teoria makettoa

euskal jakintzaren iruditeriak, kanonak  
ezegonkortzeko

teoria makettoa

ahoskera, doinu, azentu (omen) desegokiei  
harrera ona egiteko

teoria makettoa

euskaldun perfekturik ez dela ez inoiz ez inon izango  
berresteko

teoria makettoa  
bizi garen lurraren maizterrak baino ez gabela  
adierazteko

teoria makettoa  
gizaki zaugarri eta elkarren menpeko gisara, ezezagunarekin  
elkartzera, ezezaguna (ere) defendatzen jarraitzera  
kondenaturik gabela ohoratzeko

teoria makettoa  
gure kanpo eta barne mugek seinalatzen dituzten  
lotsak zauriak grinak desirak hautematen asmatzeko

etorri ginelako gara  
etorriko direlako izango gara

## PORRA

### 3 — “greba bat dut gogoan” poemako pasarteak

[\_\_\_\_] hurbilduz noala  
gizonen [\_\_\_\_] atzeman dut prozesioan

- A - plazara / mintzoa
- B - atarira / ilara
- C - manifestaziora / itzala
- D - aurreko hiru aukerak OKERRAK dira

\* \* \*

Eskaileretatik gora noa, mailaz maila, [\_\_\_\_], txiker-txiker eginda  
erraldoi dirudite langile horiek neskatila horren alboan  
[\_\_\_\_] kontua da bizitza

- A - lotsatuta / ikuspegi
- B - apal-apal / tamaina
- C - lurrari begira / perspektiba
- D - aurreko hiru aukerak OKERRAK dira

\* \* \*

baina geu gara  
gure [\_\_\_\_] industrialaren [\_\_\_\_]  
zer egin jakin barik gaudenak

- A - iragan / etorkizunarekin
- B - hondakin / ondorioekin
- C - nortasun / hondakinekin
- D - aurreko hiru aukerak OKERRAK dira



# Laugarren geltokia



*axola diren hitzen arazoa  
hitz huts bihurtzea da*

SIMONE WEIL

## ariketa (kontra)performatiboa - 2

hitzaldi online baten erdian zuzenketa bat txatean:  
ez dela ahoskatzen feminismoa feminismoa baizik

*feminismoa feminismoa feminismoa feminismoa feminismoa ...*

neure buruari autopententzia bat jartzea erabaki dut  
ehun aldiz errepikatuko dut gaur gauean:

*etórkizuna etórkizuna etórkizuna etórkizuna etórkizuna...*

ahalegin hori eginez gero  
neure euskara benetakoagoa izango (omen) da:

*etórkizuna feminismoa etórkizuna feminismoa etórkizuna  
feminismoa...*

hogeigarrenean zalantza sortu zait baina  
aurrera egin dut halere:

*etórkizuna feminismoa etórkizuna feminismoa etórkizuna  
feminismoa...*

zenbat euskaldun sortu gara Euskal Herrian  
etórkizuna etorkizúna bihurtu zenetik?:

*etórkizuna feminismoa etórkizuna feminismoa etórkizuna  
feminismoa...*

doinua zuzentzen didaten bakoitzean  
euskaldun akastun bihurtzen naiz:

*etórkizuna feminismoa etórkizuna feminismoa etórkizuna  
feminismoa...*

euskararen musikaltasunaren aldaketek  
nora eramango gaituzte?

## botere-haragiketak - 1

baserrietan behizain ohi ziren mutikoak  
edo gurdi aurrean makila eskutan, boterea antzezten

eskola-patioko erdigunean dira egun futbolean  
edo gerrara jolasten gailu elektronikoetan

baletak liluraturik duen mutikoak  
eskolako gimnasioa hustu arte ez ditu jantzi elastikoak

neska gaztea Zara-ko aldagelan da  
Bangladesheko umeek josiriko arropa  
probatzen eta probatzen eta atzera ere probatzen

bertsolariek tente, sendo behar  
lezioa ederto ikasia dute oholtza gainera igo ziren  
gazte ausartak, minigona jantzirik edo ilea larru-arras

langile izerdiaren arrastoa ezabatu nahi izan zuten  
labe garaien suntsipenaz

langile izerdiaren arrasto hura zer dagoen ereiten  
aztertzeko ikasketarik ez da gurean asmatu

iaz unibertsitateko teilatu batetik amilduriko  
behargin atzerritarrak ez zuen arnesik ezta kontraturik ere  
haren odolaren herexa ez da xaboiz garbitu

pilota josi du pilota-egileak, dakien ondoen,  
igandean den gizon-lehiarako beztitu

## botere-haragiketak - 2

Ondarruko andre bat sarea adabatzen ari da  
portuko zoruan eserita mutil senegaldarra  
haren ikasle taxuzkoena

gurpil-aulkiak bultzatzen dituzten  
gehienak ez dira jaio bertan

mendiak, hondartzak, asfaltoa  
edozein da ibilgarri euskaldun onarentzat

astebururoko protestetarako prestu, ekintza zaleak gara  
gelditasunean soilik sor daitekeen gogoari  
izkin, aparteko

artista handiak hutsunea asmatu zuen  
artearen espazioa itxita beste batzuentzat

txiza zutik eginez aurrera doa emakumea  
artista garaikidearen proposamenean  
hori al da (euskal) artea? galdetu du kulturgintzan adituak

laurogeien amaieran odola sortzeko ahalmena  
gurea dela berretsi genuen  
Bilboko kaleak gureak ziren garaian

bi mila eta hamalauko martxoaren zortziko pankartak  
zuen lan-esku merkea abortatuko dugu! zioen

hezur-haragizkoa den herri hau  
harrizko egin zuen poetak

gorpuztasunak egiten eta berregiten gaitu  
barne eta kanpoko hierarkien bitartekaritza

haragia harria baino moldakorrago betiere

## habanera

Lete hil da  
Durangoko Azokan eta Euskal Herriko zoko orotan  
haren abestiak dira berrentzun eta kantatu

auto hausnarrerako prestasun nekaezina  
zirrara eragiteko gaitasun aparta  
heriotza aurrean onespena, poeta

habanera bertsolaritzara ekarri zuena  
gu guztion eta gure ondorengoan  
nortasun iturri, legatua

zortzi egun beranduago, adin antzekoan  
Enrique Morente flamenko kantari berritzailea  
hil da Madrilgo ospitale batean

hunkipenez mutu da Albaicina  
malko ezti gozotan barnebildu da Alhambra

Estrella Morente alabak isilmina urratu du  
Carlos Canoren *habanera imposiblearen* bidez  
haren hilkutxa aurrean  
*empieza el llanto de la guitarra / es imposible callarla*

negar egin dut, ez Letegatik ezta Morentegatik ere  
euskaraduna izatea erabaki zuen  
aita flamenkozalearen alabagatik baizik

Leteren ahots garratzaren eta Morenteren kejoaren  
elkarren besarkada berraragiztatu dira neure baitan

habanera, bai, posiblea da

## ikasturte berrirako plana

Irailaren bigarren astean  
haurreskolako ume bat negarrez hasi da  
beste bat lotu zaio eta gero beste bat  
abesbatza ederrean batu dira guztiak

baina, esan dio etxerako bidean  
neskatila bati aitak,  
zergatik egin duzu negar  
eskolara pozik zoaz-eta!?  
aitaaaaa, erantzun dio berak  
aitaren enorantziak ezin harrituago  
han guztiak egiten dute negar!!

ume hori irudikatu dut  
jendez gainezka den plazaren oholtza gainean  
orkestra zuzendari:  
negar egin, madarikatuok, negar egin!  
negar egin gertatu den guztia gertatu baita benetan!  
negar egin iraganari so, etorkizun egarri!  
negar egin elkarrekin

ba ote dugu plan hoberik hurrengo ikasturterako?

## PORRA

### 4 — “lotsatzearen artea” poemako pasarteak

lotsa da [\_\_\_\_] sentitu  
baina osterera ere ez sentitzeko [\_\_\_\_]

- A - hutsaren pare / beharrizana
- B - abailduta / bulkada
- C - umiliatuta / nahia
- D - aurreko hiru aukerak OKERRAK dira

\* \* \*

lotsa da zarena edo hobe  
izan nahi ez duzuna baina bazarena  
lotsa da [\_\_\_\_] jausia, [\_\_\_\_],  
lotsa da harreman batean etena

- A - begirada / zirkuitulaburra
- B - harrotasun / parentesia
- C - atrebentzia / etenaldia
- D - aurreko hiru aukerak OKERRAK dira

\* \* \*

lotsa [\_\_\_\_] proba da  
zenbat eta gehiago [\_\_\_\_]  
orduan eta trebatuago

- A - kotoiaren / saiatu
- B - denbora / findu
- C - azkenburuko / sufritu
- D - aurreko hiru aukerak OKERRAK dira



# Bosgarren geltokia



*bestearen lekuan jartzen naiz  
neu ere lotsakorra naizela  
aitortzen dudan heinean*

DOUGLAS CRIMP

# Metapoema

ANTONIO CASADO

Ama-hizkuntza hiltzeak<sup>1</sup>  
libreago egin ninduen  
zerbait erraztu zuen  
zerbait komun genuela

harik eta ulertu arte  
komunan irakurriz  
euskaltegira itzuliz<sup>2</sup>  
euskaldunberri baten

gogoia ez da hiltzen  
hitzen geruzen arten  
bizitza konplexuaren  
subjuntiboaren alde

zailtasuna ez datza  
gramatika edo aditzan  
baizik eta bizitzan  
subjektu bakoitzena<sup>3</sup>

gehiago jakiteak  
libre egingo gaituela<sup>4</sup>  
zabal eta eman zazu  
eskola erraldoi bat

non tabernak herrian<sup>5</sup>  
jauregiak bailiran  
non kulturak uneoro  
zer jan eta zer edan

agintzen zuen eran  
bukatzen du kantua<sup>6</sup>  
haragizko erreformak<sup>7</sup>  
Hernaniko kaleetan.

1 Esteban, Mari Luz. 2013. *Amaren heriotzak libreago egin ninduen*. Iruñea, Pamiela. Hernaniko Udal Liburutegian.

2 Casado, Antonio. 2011. *Esku ezkeraz*. Donostia, Utriusque Vasconiae. Hernaniko Udal Liburutegian.

3 Euskadi Irratian entzundakoa.

4 Jn 8, 32.

5 Klinenberg, Eric. 2020. *Palacios del pueblo. Políticas para una sociedad más igualitaria*. Madril, Capitán Swing. Hernaniko Udal Liburutegian.

6 Alboka. 2001. *Lorius*.

7 Esteban, Mari Luz. 2023. *Haragizko erreformak*; Iratxe Retolazaren edizioa. Arre, Pamiela. Hernaniko Udal Liburutegian.

# Zain-hi-tzak

ARANTZA ETXEBERRIA

Bozak datoz beste kuartotik,  
aita-amak iratzarri dira, oraindik ilun dagoenean.  
“Errezaukou?” esan du amak,  
eta goizeroko otoitzarekin hasi dira,  
hamarkadak eta hamarkadak hori bera errepikatuz, beti.

*“Oh señora mía, oh madre mía,  
yo me ofrezco en todo a vos...”*

(Amabirjinari bezala zuka edo berorika hitz egiten zaio  
emakumeari unibertsitatean;  
gizonen zirkulu hautatukoek, aldiz, beren artean hika)

Batzuetan aitak ez ditu jada gogoratzen berbak,  
amari segitzen dio,  
ozen erreztatzen dute batera:

*“Señor dios omnipotente que nos habéis hecho llegar  
al principio de este día,  
sálvanos hoy por tu poder para que en todo el día  
no caigamos en ningún pecado...”*

Umetan zigor txikiak izaten genituen  
anai-arreben artean erdaraz hitz egiteagatik  
—sukaldeko txoko batean geldi egon edo domekako pagari  
mehatxua—.

“Hori ez da gurea” zioen aitak edo amak;  
artean eskola giroan beste erdara hori egiten genuen arren,  
euren gazte denboran bezala.

*“En prueba de mi filial afecto os consagro en este día  
mis ojos, mis oídos, mi lengua, mi corazón  
en una palabra: todo mi ser ...  
guardadme y defendedme como cosa y posesión vuestra...”*

Aita endredatuta egoten da ez dakienean bere herriko  
bere etxean dagoen,  
ala bere gauza denen kopia bereizezin bat egin ote dioten.  
Anaiak dionez, amak atzo ez zekien zeren bila ibili zen,  
baina bai ez zuela topatu.

Hitzaldi batean entzun dut  
filosofian berriro eztabaidatzen dela  
erlatibismo linguistikoa.  
Gure hizkuntzan bereizten diren koloreen  
esparru kromatikoaren barruan bizi garen da galdera.  
Eta hori neurozientziaz justifika daitekeen.

Hizlariak ideia bitxi bat gehitu du:  
giza espezieak hizkuntza bat eta bera hitz egiten duela,  
ezin direla hizkuntza ezberdinak erabat bereizi  
jarraituak dira denboran eta espazioan,  
heterogeneoak, aldakorrak, hibridoak, etenik gabekoak,...  
eleaniztasuna  
beti hizkuntza bera den aldaera anitzen paisaia.

*“Augua currienti nu mata genti, augua par la matar.”*

Anibal Martinek erakusten duenez, *estremeñua*,  
ez da gaizki eraikitako gaztelera.  
Zeharo gutxietsi da, *asturianu* edo *aragoiera* bezala, esanez:  
“ez da hizkuntza bat, kultura faltaren emaitza da”.

Ez dakit aita-amek badakiten beti zer dioten,  
baina amaitzen dute gaurkoa:

*“...que todas nuestras palabras, pensamientos y obras  
vayan dirigidas al cumplimiento de vuestra ley”*

Horren ostean amak: “Oiñ *aitaguria*, ezta?”  
eta ozen entzuten dut otoitz hori bi bozetan euskeraz.

Gero pisatu, tentsioa hartu, garbitu, jantzi, armosua,...  
eta eguna badoa aurrera.

# Gautxo euskalduna

DAMIAN PEDROSA

E...! che...! mutil...!

Berria zara hemen?

Berria? Zaharra, hobeto esanda.

Baina, haragi errea tximitxurriekin jatea  
ez dator bat gure ohitura zaharrekin.

Garaiak aldatzen dira!

Hasieran baserrietan biziz, auzoetan;  
orain herrietan, hirietan, mobiletan itsatsita.

Gure euskaeran hainbeste hitz berri  
eta jatorri desberdinetako jendearen ahoetan,  
denekin komunikatzeko baliabide anitza.

Horregatik gure hizkuntza indartzeko beti prest,  
bai jolasten, kalean literaturaren aitzakiarekin biltzen,  
edo herriz herri korrika egiten.

Eta horretarako denok parte hartzea ezinbestekoa da;  
berdin zaigu edozein herritatik etorritakoa,  
bai iritsi berriak edo orain dela urte batzuk.

Ez zenekien gautxo euskaldunak daudela?

# Hizkuntzak egin ninduen

JUANBAU ERAUSKIN

Beharbada orain arteko poeta guztiak oker zeuden.

Beharbada hotsak hitz bihurtu aurretik

ez zegoen lurrik:

*tximistak, trumoiak, luiziak, zaparradak, erauntsiak, oihuak,  
uluak, haize bafadak, talkak, min-garrasiak, enbatak...*

edo izenik ez zion jarri inork.

Non ari dira gertatzen hots horiek?

Lur bat behar du hizkuntzak, eta lurrak —hala izendatua izateko—

hizkuntza.

Ni lur izeneko hizkuntzan jaio nintzen.

Ni euskara izendatutako lurlean jaio nintzen.

Ni euskararen lurra izeneko hizkuntzan jaio nintzen.

Ni amalurraren amahizkuntzan jaio ninduen amak.

Hizkuntzaren lurra naiz, lurraren hizkuntza bezainbat.

Hizkuntzaren lur honetan amahizkuntza biziz ematen diot izena lurrari.

Ez besterik.

Beharbada orain arteko poeta guztiak oker zeuden

eta hizkuntza da lurra.

Egunero egiten gaituen lur eman eta emekorra.

Beharbada.

# Euskalduna da norbait euskera duena

MARIA MORA ETA ANDONI MARTINEZ DE USTARAN,  
HERNANIKO AEK-KO IKASLEAK

**H**istoria hau gure historia da. Andoni eta Maria, Maria eta Andoni. Iragan desberdina dugu, baina orainaldi bera dugu: euskara, gure etxe berria.

*Maria naiz, Madrilen jaio nintzen, baina Mantxako sustraiak ditut.*

Andoni naiz, Necochean, Argentinan, jaio nintzen baina euskal sustraiak ditut.

*Txikia nintzenean, euskara oso urrutiko hizkuntza zen niretzat. Ez nekien etorkizunak kontrakoa irakatsiko zidala.*

Txikitatik euskara gertu egon da. Gure herrian euskal etxe bat daukagulako. Han ibiltzen ginen egunero. Musika entzuten, euskal dantzak egiten, euskal ohiturak partekatzen. Euskara oso gertu zegoen, baina inoiz ez nuen ikasi. Etorkizunean, itxoiten ari zen ikasteko momentua.

*25 urte nituenean, nire bikote David ezagutu nuen. David hernaniarra da eta erakutsi dit zer esan nahi duen euskara izateak.*

15 urte nituenean, Argentinatik Madrilera mugitu nintzen familiarekin. Orduan gertuago, lehen aldiz Euskal Herria ezagutu nuen eta, ia ia, astebururo etortzen nintzen bisitan. Lagun berriak egin nituen, eta haien bizitza euskaraz zen. Momentu horretan pentsatzen hasi nintzen euskara ikasi behar nuela.

*Hernanira mugitu nintzenean, erabaki nuen euskalduna izan nahi nuela, euskera eduki nahi nuela.*



20 urte geroago bizitzak eta familiak ekarri naute Hernanira. Euskara gure aitona-amonena zen, baina orain gure arrebarena eta ilobena ere bada. Beti euskalduna sentitu izan naiz, eta beti zor bat sentitu izan dut euskararekin. Orain euskara eduki nahi dut.

*Orain, nire bikotea, nire koadrila eta nire euskaltegiko familiak eskua ematen didate euskararen bidetik ibiltzeko.*

Gaur Hernanin bizi naiz, euskaltegira iritsi naiz eta bide berria hasi da.

Oso desberdinak ematen dugu baina euskararen bidez gure bideak lotu ditugu. Hortik aurrera, urte askotarako.

Izarok esaten du:

“Emaidazu eskua eta etorri iparraldera  
Arima guztiak zuzentzen diren norabidera  
Zatoz iparraldera  
Gordeko dizut etxe bat”

Euskaltegira joan ginen euskara ikasteko.  
Eta oraintxe bertan, euskaltegian aurkitu dugu gure etxea.  
Euskaltegiak hizkuntza bat, etxe bat, eta familia bat  
oparitu dizkigu.

Gure sustraiak hasi ziren urruti, baina gure hostoak sortu ziren hemen.

## PORRA

### 5 — “lainoa” poemako pasarteak

lainoa sartu da itsasotik  
[\_\_\_\_]  
hiriaren etorbide nagusiak  
gainezkatuz  
bizion begiak [\_\_\_\_]

- A - kolpetik / zabalaraziz
- B - suabe-suabe / itsutuz
- C - apurka-apurka / koloreztatuz
- D - aurreko hiru aukerak OKERRAK dira

\* \* \*

lainoa sartu da itsasotik  
handios  
baina [\_\_\_\_]  
gu gizagaixook  
elkar ukitzera [\_\_\_\_]

- A - umil / kondenatuz
- B - isilean / gonbidatuz
- C - zaurgarri / bultzatuz
- D - aurreko hiru aukerak OKERRAK dira


\* \* \*

lainoa sartu da itsasotik  
[\_\_\_\_]  
ziur, bipil  
gure [\_\_\_\_]  
absolbituz

- A - arranditsu / bekatuak
- B - ausart / larderiak
- C - abailan / ausarkeriak
- D - aurreko hiru aukerak OKERRAK dira

*Baina mundu osoa bere laukitik ateratzen ari denean,  
ulertzen bakarrik saiatzen naiz,  
zer den eta zergatik gertatzen den dena,  
eta zeregin horrekin bukatu dudanean  
nire lasaitasuna eta umore ona berreskuratzen ditut*

ROSA LUXEMBURG



Testu hauek  
jendurrean irakurri ziren  
2024ko martxoaren 17an  
Hernaniko kaleetan.

[www.hkl.eus](http://www.hkl.eus)